

EUSKAL DIALEKTOLOGIA GORA BIDEAN

J.I. Hualde, G. Elordieta, A. Elordieta: *The Basque dialect of Lekeitio*, ASJU-ren gehigarriak, 34. zb., EHU-Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1995.

O. Ibarra: *Ultzamako hizkera*, Nafarroako Gobernua. Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentua, Iruñea, 1995.

Amateur jendearen esku egon dira luzaroan dialektologi ikerketak Euskal Herrian. Salbuespenen bat edo beste izan den arren –eta Jean Larrasquet zuberotarrak II. Mundu-Gerra aurretik egindako ikerlanak datozkit gogora–, borondate handiko baina prestakuntza txikiko euskaltzaleak izan dira zeregin horretan jardun dutenak eta horren ondorio dira euskal dialektologiaren pena eta nekeak.

Azken hamarkada bietan, horratik, urak bide onera etortzen hasiak direla ematen du eta filologiako fakultateetan euskal filologia sailak abian jarri izanak dirudi horren arrazoi nagusia. Karmele Rotaetxek Ondarroako hizkeraz egindako ikerlana (1978), Pello Salaburuk Baztangoaz egindakoa (1984), Juan Manuel Etxebarriak Zeberioakoaz egindakoa (1991), Ana María Etxaidek Nafarroa Garaian barrena burututako inkesta (1989) eta Rosa Miren Pagolak herrialde horren berorren mendebalean burututakoa (1992) dira joera berriaren zenbait adibide.

1995. urtean bertan ere egin da ekarpen banaka bat dialektologia arlo honetan eta nire iritziz nabarmenenak diren biak nahiko nituzke hemen aipatu: J. I. Hualde, G. Elordieta eta A. Elordieta hirukoteak plazaratutako *The Basque dialect of Lekeitio* (ASJU-ren gehigarriak, 34. zb., EHU-Gipuzkoako Foru Aldundia) da bata eta Orreaga Ibarrek plazaratutako *Ultzamako*

hizkera (Nafarroako Gobernua. Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentua) bigarrena.

Azentuaren inguruko gaiak aztertu izanagatik genuen José Ignacio Hualde ezaguna. Euskaltzaindiak Leioan antolatutako XIII. Biltzarrean gai horri buruzko txosten bi aurkeztu zituen (ikus *Euskera* 1994) eta *Anuario del Seminario “Julio de Urquijo”* [ASJU] aldizkarian ere hainbat artikulu argitara emana du 1986tik hona. Ikerketa horien bitartez, Mitxelena *Fonética Histórica Vasca* liburuan (2. arg. 1977) eta Txillardegik *Euskal azentuaz* (1984) izenekoa erabilitako azterbi-deak eta aurkeztutako emaitzak osatu batzuetan eta aldatu besteetan egin ditu José I. Hualde irakasleak.

Baina ez dira ikerketa horiek Hualdek egin dituen bakarrak. Fonologia bere osotasunean izan du maiz aztergai eta *Basque Phonology* liburuan (London & New York: Routledge, 1991) erakutsi zuen euskal fonologiaren oinarri eta arau-bilduma zabala. Arlo horretan aurrera egingo bazen ordea, hizkerak banan-banan aztertu beharko zirela jabetu zen. Getxokoaren azterketa izan zen bide horretako lehen urratsa eta Xabier Bilbaorekin elkarlanean plazaratutako *A phonological study of the Basque dialect of Getxo* (ASJU-ren gehigarriak, 29. zb., 1992) emaitza.

Elordieta neba-arrebekin argitaratu duen *The Basque dialect of Lekeitio* hauxe da, berriz, bigarren urratsa eta benetan alde handia nabari da aurrekotik hona. Lekeitioko euskara bere zabaltasun eta sakontasun osoan aztertu dute hiru egileek: fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoa. Erabilitako corpusaren zati bat ere transkribatu dute eta uste izatekoa denez, hizkera honetako azentuaren ezaugarriak ere zorrotz zehaztu dituzte.

Azterbide aldetik ez dauka inolako atxakiarik eta egileetarik bi sortzez lekeitiarrak direnez, aurkezten diren arauak eta erakusten diren argibideak zuzenak eta ugariak dira. Hori dela eta, dialektologia eta hizkuntzazaleendako ezezik, hizkera jakin bat aztertu nahiko lukeen edonorendako ere aintzakotzat hartu beharreko eredia da honako hau. Ingeleseaz egotea izan liteke zenbaitendako oztopoa eta mundu zabaleko hizkuntzalariendako egoki bada ere hala egitea, Euskal Herri barruko arazoei aurre egiteko mesedegarria litekeela uste dut euskaraz emango balu Hualdek bere hirugarren urratsa.

Ultzamako hizkera da, berriz, Orreaga Ibarrek dialektologiaren esparruan eman duen lehenbiziko urratsa. Azterbide aldetik ez dago aparteko berrikuntzarik, ohikoa da-eta egileak jarraitu duen eredia: fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoa. Azentua aztertu izana da gure artean hain ohikoa ez dena eta zeregin horretan zuzen jarduteaz gainera, berezi samarra den azentu-mota jarri du agerian. Hizkuntzaren alderdi sozialaz jardutea ere ez da euskal dialektologian oso ohikoa eta bada honetaz hainbat albiste Ibarren lanean.

Esanak esan, orain artean ezezagunak genituen hizkerak erakutsi izana da nik neuk liburu honi ikusten diodan balio nagusietako bat. Zabala ere bada aztergai izan den eremua, Ultzama harana ezezik, honen mendebalean dauden Basaburua eta Imotz, hegoaldean dagoen Atetz eta ekialdean dagoen Anue ere izan direlako aztergai. Eremuaren handitasunak ez du, gainera, hizkerok sakontasunez aztertzea eragotzi, eta argibiderik ugariak eta ziurrenak Ultzama bertakoak diren arren, aldamenetako haranetan duten hedaduraren berri ere ematen du Ibarrek.

Arauak zehazte eta alderatze horrek Bonaparteren euskalki-sailkapenaren akatsak ekarri ditu atzera berriro azalera. Ibarrek argiro erakusten duenez, bat da Basaburuan eta Imotz gehienez –haranaren hegoaldean dagoen Muskitz da aldentzen dena– egiten den hizkera eta beste bat Ultzama, Atetz eta Anuen egiten dena, nahiz eta Bonapartek “Ultzamako hizkera” izendatu zituen hauek guztiok. Honek, bide batez, Bonapartek egindako “iparraldeko goinafarrera” / “hegoaldeko goinafarrera” banaketa bera ere ezartzen du auzipean.

Bonaparteren sailkapenean izan da, denok ondotxo dakigunez, beste zenbait eztabaida-iturri: erronkariaren “zuberotartasuna”, baztaneraren “lapurtartasuna”, burunderaren “gipuzkoartasuna”..., baina auziok mahai gainera ekarri dituztenek frogatu gutxi –gutxi eta ahulak aukeran– aurkeztu dituzte gauzak beste era batera izan zitezkeela ikusarazteko. Ibarrek, aitzitik, frogatu ugariak –ugariak eta sendoak gainera– aurkeztu ditu bere usteen sendogari, eta beharrezkoa

ere bazen hori euskal dialektologiaren gaitzen sendagarri.

Badu Ibarraren liburuak nabarmendu nahiko nukeen beste balio bat. Nafarroako mendialde gehienez bezala, demografiak gainbehera egin du Ultzama inguruetan ere azken hamarkadetan. Zahartu egin da bertako populazioa eta populazioarekin batera zahartu egin da euskara bera. Zahartu eta, aldi berean, bere prestigioa eta ospea galdu. Gurasoengandik seme-alabenganako transmisioa eten

denez, euskalkiarenak egin du eremu honetan eta euskararenak berarenak oraindik egin ez badu eta etorkizunari begira itxaropena izateko arrazoiak baldin badira ere, euskara estandarra edo estandar antzekoa izango da, ezer izatekotan, han nagusituko dena. Ez behinik behin belaunaldiz belaunaldi garatuz etorri den euskalkia. Euskalki hori zeharo galdu aurretik jaso izana da, besteak beste, Orreaga Ibarrari eskertu beharko dioguna.

Koldo Zuazo